

## LATINA

Latina aukerako jakintzagaia da laugarren mailan, eta hizkuntza, kultura eta zibilizazio latindarraren alderdietarako eta haien iraupenerako hurbilketa espezifikoa bat da. Jakintzagai honen ikuspegiaren berezitasuna jakintzagaiaren izaera bikoitzak baldintzatzen du. Alde batetik, ikasle batzuentzat gure egungo gizartearen oinarri diren hizkuntza, kultura eta zibilizazio latindarraren alderdi jakin batzuk ezagutzeko aukera bakarra da derrigorrezko eskolatzearen barruan. Bestetik, irakaskuntza propedeutikoa izan behar du ikasketak diziplina horretan jarraitzen dituzten ikasleentzat. Izaera bikoitz hori dela eta, ahalegina egin behar da gizarte gisa dugun identitatearen jatorri klasiko nabaria deskribatzeko, testuinguruan kokatzeko eta ulertzeko.

Jakintzagai hau lagungarria da funtsezko kompetentziak garatzeko eta eskuratzeko, eta ikasleen garapen pertsonal eta soziala eta balio unibertsalen transmisioa sustatzen ditu. Hizkuntza, kultura eta zibilizazio latindarraren alderdien eta haien eta orainaren arteko erlazio kritiko bat ezartzea ahalbidetzen duten estrategien inguruan antolatuta dago. Ildo horretan, hizkuntza-elementuak eta beste mota bateko elementuak (literatura-arlokoak, arkeologikoak, historikoak, sozialak, zientifikoak, kulturalak eta politikoak) uztartzen ditu. Lehen elementu horiek, gainera, latinaren funtzionamenduari zein EAeko irakaskuntza-hizkuntzen eta ikasleen hizkuntza-errepertorio indibiduala osatzen duten hizkuntzen funtzionamenduari buruzko gogoeta sakona egitea dakar.

Halaber, ukalezina da latinak gainerako jakintzagaiei egiten dien ekarpena. Latinaren sistema hizkuntza flexiboaren eredu gisa aztertzeak aukera ematen du, konparazioaren bidez, gaztelaniaren, euskararen eta beste hizkuntza batzuen elementu formalei eta mekanismo sintaktikoei buruzko gogoeta egiteko. Latina ezagutzea lagungarria da hizkuntza erromantzeak bilakaera baten ondorioa direla eta haien egitura eta lexikoa jatorrizko hizkuntzarekin zorretan daudela ulertzeko. Horretarako, Kontseiluak 2018ko maiatzaren 22an etengabeko ikaskuntzarako funtsezko kompetentziei buruz emandako Gomendioan

hizkuntza klasikoak sartzean, latina eta grekoa hizkuntzak ikasteko eta ulertzeko tresna bihurtu dira. Era horretan, hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntzen arteko lotura sustatzen dira, ikuspegi demokratiko batean oinarrituta eta aurreiritzirik gabe. Bestalde, jakintzagaiak iraganarekin elkarrizketa bat ezartzea ahalbidetzen du. Elkarrizketa horren bidez, oraina uler daiteke, hizkuntza-ikuspegi batetik ez ezik, literatura-ikuspuntutik eta ikuspuntu arkeologiko, historiko, sozial, zientifiko-kultural eta politiko batetik ere bai. Elkarrizketa horretan, gainera, kultura-ondare latindarra kontserbatu, zaindu eta zaharberritzeko prozesuek esku hartzen dute. Prozesu horiek zibilizazio klasikoaren legatuarekin konprometitzeko aukera ematen die ikasleei, etorkizunarekin konprometitutako ikuspegi iraunkor batetik abiatuta.

DBHn, latinari lotutako konpetentzia espezifikoek arestian aipatu dugun orainaren eta iraganaren arteko elkarrizketa hori jasotzen dute, eta hiru ardatz nagusitik abiatuta planteatzen dira: latinaren legatu materialaren zein immaterialaren izaera klasikoari buruzko gogoeta humanista erdigunean kokatzea, egungo munduaren ulermen kritikoa sustatuz, betiere genero-ikuspegia kontuan hartuta; konpetentzia eleaniztuna hobetzen laguntzea, ikasleek euskal hezkuntza-sistemako irakaskuntza-hizkuntzen eta ikasleen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen funtzionamenduari buruzko gogoeta egin dezaten sustatuz; eta hizkuntzaren sarrera bat eskaintzea, testuak ulertzeko eta, era horretan, kultura eta zibilizazio latindarrera hurbiltzeko.

Oinarrizko jakintzak lau multzotan antolatuta daude. Lehenak —Zibilizazio latindarraren oraina— espiritu kritikoa eta judizio estetikoak garatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta esperientziak biltzen ditu, latinezko literatura-testuak interpretatzeko trebetasunak eskainiz eta latinezko obra garrantzitsuen (adierazpen guztietan) eta tradizio klasikoko obren irakurketa konparatua sustatuz. Bigarren multzoak —Latina eta eleaniztasuna— azpimarratzen du nola laguntzen duen latina ezagutzeak ikasleen errepertorio indibiduala osatzen duten hizkuntzak zehaztasun handiagoarekin erabiltzen eta terminologia kultu, zientifiko eta teknikoak behar bezala ulertzen. Latinaren formantei buruzko azterketatik abiatuta, irakaskuntza-hizkuntzetan eta ikasketa-hizkuntzetan esanahiak ondorioztatzeko estrategiak ezartzen dira latinezko erroak, aurrizkiak eta atzizkiak ezagutzearen bidez. Hirugarrenak —Latinezko testua— latinaren oinarrizko elementuen identifikazioan eta azterketan (sistema gisa, testuinguru baten barruan) inplikaturako jakintza guztiak biltzen ditu, eta hizkuntzaren ulermenaren eta erabilera aktiboaren inguruan antolatzen ditu. Azkenik, laugarren multzoak —Legatua eta ondarea— zibilizazio latindarraren herentzia material eta immaterialera hurbiltzea ahalbidetzen du, inspirazio-iturri, teknika eta historiaren testigantza gisa duen balioa ezagutzuz eta balioetsiz.

Ikasleek zeregin aktiboa beteko dute latinari lotutako hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eskuratzeko prozesuan, eta, horretarako, hainbat komunikazio-trebetasun lortuko dituzte pixkanaka eta gidatuta, hainbat esparrutan eta ingurune analogiko eta digitaletan. Horretarako, ikasgelan ozenki irakurtzeak, entzunezko ulermenak, idazlanak eta ahozko produkzioak maiztasun-lexikoa eta latinaren oinarrizko egitura morfosintaktikoak barneratzea errazten dute, testuak eta enuntziatuak ulertu eta interpretatu ahal izateko.

Ikasteko egoeren bidezko lanak, gainera, latina beste jakintzagai batzuekin lotzeko aukera ematen du, etapako helburuak lortzeko eta konpetentziak garatzeko. Ikuspegi eleaniztunak eskaintzen dituen hizkuntza-arloko jakintzagaiekiko loturekin batera, latinaren konpetentzia espezifikoak eskuratzeko zeregina diziplinarteko proiektuen bidez planifikatzea gomendatzen da. Azkenik, Europako herritartasun demokratiko eta aurreiritzirik gabeko baten eraikuntza bultzatzeko, jakintzagai honen barruan nazioz gaidiko kolaborazio-lana egin daiteke Europako programen esparruan, kultura latindarra Europako egungo identitatea osatzen duten errealitate guztien topagune gisa landuz. Ildo horretan, tresna digitalen ahalmena bete-betean balia liteke jakintzagai hau ikasi, irakatsi eta ebaluatzeko, baita alfabetatze mediatikoa eta teknologiararen erabilera egokia, segurua, etikoa eta arduratsua sustatzeko ere.

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Zibilizazio latindarrak Europako identitatearen jatorrian bete duen zeregina baloratzea, hizkuntzen eta kulturen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak konparatuz eta ezagutzuz, oraina kritikoki aztertzeko.

Zibilizazio latindarrak Europako identitatearen hasiera gisa bete duen zeregina baloratzeko, beharrezkoa da latinezko iturrien bidez adierazitako informazioa jasotzea, informazio hori kontrastatu eta aztertzea, eta zibilizazio latindarraren alderdi linguistiko, historiko, politiko, kultural, zientifiko, matematiko, artistiko edo sozialek gure gizartean iraun izanari buruzko gogoeta egin ahal izateko estrategia egokiak abiaraztea. Beraz, kultura latindarra ulertu behar da, eta antzinako bizimoduaren eta pentsamenduaren berezitasunari buruzko gogoeta egitea eta berezitasun hori berrikustea ahalbidetzen duten funtsezko elementuak ezagutu behar dira, baita egungo bizimoduekiko eta pentsamenduarekiko hurbiltasuna ere, hizkuntzen eta kulturen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak alderatzeko, latinezko sorkuntzak eta ondorengo sorkuntzen tradizio klasikoa aurrez aurre jarritz.

Orainaren analisi kritikoa egiteko, informazio kotestuala eta testuingurukoa behar da. Informazio horrek balorazio-hipotesiei elementuak eta argudioak gaineratzea ahalbidetu behar du, kultura-konstanteetara zein kultura-aldagaietara irekita egongo den kontzientzia humanista eta berdintasunezko bat garatzeko. Analisi horri ikuspuntu kritiko batekin ekiteko, erromatarren ondarean gizarte gisa hazten laguntzen digun zatia eta dagoeneko mundu modernoan lekurik ez duen zatia bereizteko gai izan beharra dago, eta gaitzespen-jarrerara agertu behar da edozein diskriminazio mota erakusten duten alderdien aurrean. Analisi-prozesuetarako, Antzinaro klasikoaren herentzia eta hura jatorri duten kultura-desberdintasunak errespetatuko dituzten gogoeta- eta komunikazio-testuinguru dialogikoak behar dira hainbat esparru eta testuingurutan.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE2, KE3, KD1, KD2, KD3, KPSII3, HK1, HK3, KAKK1.

2. Latinaren oinarrizko alderdiak ezagutzea, EAEko irakaskuntza-hizkuntzekin eta ikasleen errepertorio indibidualaren beste hizkuntza batzuekin alderatuz eta ezaugarri komunak, jatorrian dituzten desberdintasunak, egitura eta bilakaera historikoa baloratuz, hizkuntza-aniztasuna kultura-aberastasunaren erakusgarri gisa aintzat hartzeko.

Latinaren etimologiaren eta lexikoaren oinarrizko elementuak hizkuntzak eskuratzeko ikuspegi eleaniztun batetik sartzeak aukera emango die ikasleei ezagutzak eta estrategiak beren errepertorioko hizkuntzetatik latinera transferitzeko, eta alderantziz. Era horretan, hizkuntza berrien ikaskuntza eta komunikaziorako konpetentzia hobetzeko beharrezkoak diren trebetasunak aktibatu ahal izango dituzte, eta ikasleen hizkuntza-ezagutzen mailak eta errepertorio indibidualak kontuan hartzea ahalbidetuko da. Latina hainbat hizkuntza modernoren jatorrizko hizkuntza izateak hainbat hizkuntza-aldaera eta hizkuntza-profil ezagutzea eta balioestea ahalbidetzen du, eta hizkuntza-, dialekto- eta kultura-aniztasuna identifikatzen, baloratzen eta errespetatzen laguntzen du, kultura partekatu bat eraikitzeko.

Aurreko guztiak EAEko irakaskuntza-hizkuntzen eta ikasleen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen funtzionamendua hobeto ulertzea sustatzen du. Horrek, alde batetik, ulermenezko irakurketa eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzen du latinezko hiztegia eta gramatika-egiturak ezagutzearen bidez, eta, bestetik, trebetasun lexikoak eta semantikoak garatzen laguntzen du, jatorri greko-latindarreko lexiko arruntaren esanahia ondorioztatzeko estrategiak eskuratzearen eta lexiko jasoa, zientifikoa eta teknikoa osagai etimologikoetatik abiatuta ulertzearen bidez. Hizkuntzak alderatzeko, beharrezkoa da, halaber, latinetik hizkuntza erromantzeetarako bilakaera fonetikoaren oinarrizko arauak erabiltzea eta latinetik eratorritako hitzak (ondarezkoak zein kultismoak) eta latinezko esaerak hainbat hizkuntza-testuingurutan identifikatzea. Konpetentzia honek latinak atzerriko hizkuntza berriak ikasteko prozesuan duten baliagarritasunari buruzko gogoeta dakar; prozesu hori tresna digitaletan oinarrituta egin daiteke, hala nola Europako Hizkuntzen Portfolioan.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE2, KE3, STEM1, EK3.

3. Latinezko testuak irakurtzea eta interpretatzea, testuetarako hurbilketa prozesu dinamiko gisa bere gain hartuz eta norberaren ezagutzez eta esperientziez jabetuz, haien izaera klasikoa eta funtsezkoa identifikatzeko.

Hainbat genero eta garaitako latinezko testuak irakurtzea Latina jakintzagaiaren zutabeetako bat da 4. mailan. Testu horiek ulertu eta interpretatzeko, ikaskuntzaren emaitza izan behar duen testuinguru historiko, zibiko, sozial, linguistiko eta kultural bat behar da. Jatorrizko testuekin edizio elebidunean, itzulita edo egokituta, osorik edo hautatutako pasarteetan bitartez lan egiteak ezagutza linguistiko, lexiko eta kultural bat dakarten latinezko oinarritzko kontzeptu eta terminoei arreta jartzea ahalbidetzen du, irakurketa kritiko bat egiteko eta latinak gizarte gisa dugun identitatearen eraikuntzan duen funtsezko balioaz jabetzeko. Hortaz, latinezko testuak interpretatzeak latinak mendebaldeko zibilizaziorako duen sorrera-izaera ulertzea eta ezagutzea eta testuetarako hurbilketa prozesu dinamiko gisa bere gain hartzea dakar. Prozesu horretan, gaiari buruzko ezagutza ez ezik, azterketa kritikorako eta gogoetarako estrategien garapena ere hartzen da kontuan, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza izaera ulertzeko eta sentsibilitate estetikoak garatzeko. Literatura- eta arte-sorkuntzak, Erromako historiaren aldiak, haren antolamendu politiko eta soziala eta Antzinaro klasikoko gertaera historikoak eta kondairazkoak ezagutzeak obrak ulergarriago egiten laguntzen du, eta, era horretan, gure kultura-ondarean duten iraupena eta erreferentziak antzinako ereduetatik hartu dituzten kulturetara eta literatura-, kultura- eta arte-mugimenduetara egokitzeko prozesuak identifikatzen eta baloratzen dira.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KE1, KE2, STEM1, KPSII4, KAKK1, KAKK2.

4. Latinezko testuak ulertzea, latinezko enuntziatu sinple baten esanahia jakiteko estrategiak garatuz, gure zibilizazioaren oinarria den latinezko literatura klasikoaren altxorretara zuzenean, pixkanaka eta gidatuta hurbiltzeko.

Latina jakintzagaian latinaren oinarritzko elementuak ezagutzen hastea lehen urratsa da estrategia eta lan-metodo egokiak ezartzeko (Batxilergoan latinaren eta grekoaren ikasketetan jarraituko dutenak). Abiapuntu hori euskarri analogiko eta digitaletan emandako maila egokiko eta zailtasun progresiboko pasarteak edo testuak ulertzean datza, honako hauek oinarri hartuta: oinarritzko maiztasun-lexikoaren barneratzea, latinaren elementu morologiko eta sintaktikoen identifikazioa, lotura eta azterketa, komunikazio-trebetasunen eskuratzea eta Erromako historiako aldirik esanguratsuenek gaiari eta testuinguruari buruz eskaintzen dituzten aurretiazko ezagutzak. Hezkuntzaren maila horretan, latina ulertzeaz gain, perpaus sinpleen idatzizko eta ahozko ekoizpena hasten da, latinaren berezko egiturak erabiliz. Horren bidez, ikasleek beren hizkuntza-errepertorio indibiduala zabaltzen dute eta hizkuntzak ikasteko prozesuei buruzko gogoeta kritikoa egiten dute.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE1, KE2, KE3, STEM1, KD1, KPSII4, KPSII5.

5. Erromatarren garaiko ondare kulturala, zientifiko-teknologikoa, arkeologikoa eta artistikoa aurkitzea, ezagutzea eta baloratzea, giza sorkuntzaren produktu eta historiaren testigantza gisa aintzat hartuz eta aitortuz, inspirazio-iturriak identifikatzeko, eraiki, zaindu, kontserbatu eta zaharberritzeko prozesuak bereizteko eta haien iraunkortasuna bermatzeko.

Erromatarren garaiko ondare kultural, zientifiko-teknologiko, arkeologiko eta artistiko materiala eta im-materiala gure herrialdeak ez ezik gure ingurune herrialdeek ere jaso dute, eta zibilizazio latindarraren zuzeneko herentziaz hartzen da hemen. Herentzia materiala ezagutzeko, beharrezkoa da ondarea zuzenean eta zeharka behatzea eta, horretarako, hainbat baliabide erabiltzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituztenak barne. Ondare materialaren garrantziaz jabetzeko, erakuntza-prozedurak —ondare arkeologikoaren kasuan— eta konposizio-prozedurak —idazketa-euskarrien kasuan— ezagutu eta ulertu behar dira. Gainera, zaintzeko, kontserbatzeko eta zaharberritzeko prozesuak bereizi behar dira, bereziki ingurunearekin eta legatu propioarekin konprometitutako herritar aktiboen parte-hartzea behar duten alderdiak kontuan hartuta, UNESCOren munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko Konbentzioari jarraikiz. Bestalde, zibilizazio klasiko latindarraren herentzia immateriala ezagutzeak (erakundeetan erabiltzen den oratoria, zeremonia pribatuak, aisia-ikuskizunak eta abar) gure egungo gizartearen eta kulturaren funtsezko alderdi batzuk ulertzen laguntzen du.

2023ko uztailaren 31, astelehena

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE3, STEM1, KD1, KD2, KD3, HK1, HK4, KAKK1, KAKK2.

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Latina
<b>1. konpetentzia espezifikoa</b>
1.1 Egungo kultura-produktuen esanahia deskribatzea Europako kultura-garapenen testuinguruan, Antzinaro latindarrarekiko antzekotasunak eta desberdintasunak alderatuz.
1.2. Erromako gizarteko bizimoduak, ohiturak eta jarrerak kritikoki baloratzea gure gizarteetakoekin alderatuta, hainbat euskarritan emandako latinezko iturrien edukitik abiatuz.
1.3. Erromako historiako aldiak, gertaerak eta pertsonaiak eta erromatarren zibilizazioaren alderdiak beren testuinguru historikoan identifikatzea, emakumeen ekarpena kontuan hartuz, datuak egungo erreferentziekin lotuz eta eskuratutako ezagutzak aplikatuz.
<b>2. konpetentzia espezifikoa</b>
2.1. Latina jatorri duen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna kritikoki baloratzea eta hartara egokitzea, inguruko hizkuntza-elementuen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta azalduz, norberaren kulturakoekin lotuz eta kultura partekatu bat eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasun bat garatuz.
2.2. Latinezko terminoen esanahiak ondorioztatzea, errepertorio indibidualeko beste hizkuntza batzuen ezagutza lexikoak eta fonetikoak aplikatuz.
2.3. Lexikoa zabaltzea eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzea, latinismoak eta latindar jatorriko lokuzioak modu koherentean txertatuz.
2.4. Eguneroko terminoen, termino zientifikoaren eta teknikoaren definizio etimologikoak ekoiztea, hainbat hizkuntza-testuingurutan latinezko elementuak ezagutuz eta, bidezkoa izanez gero, ondare-termino baten eta kultismo baten arteko lotura semantikoa ezarriz.
2.5. Hizkuntza erromantzeak sortzeko prozesuak aztertzea, latinetik gaztelaniarako bilakaeraren oinarritzko arauak erabiliz, lexiko arruntaren inferentzia-estrategiak baliatuz eta bilakaera horren ondoriozko hizkuntza-aniztasuna kultura-aberastasun gisa baloratuz.
2.6. Latinaren eta euskararen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzea, latinak euskararen lexikoan eta bilakaeran duen eragina identifikatuz.
<b>3. konpetentzia espezifikoa</b>
3.1. Zibilizazio latindarraren literatura- eta arte-adierazpenen izaera klasikoa eta humanista ahoz, idatziz edo era multimedialan azaltzea, hiztegi zuzena eta adierazpen egokia erabiliz.
3.2. Testu baten zentzu orokorra, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutzea, testuinguruan kokatuz, bertan agertzen diren erreferentzia historikoak, sozialak, politikoak edo erlijiozkoak identifikatuz eta aztertutako pertsonaia eta gertaera historikoei buruzko ezagutzak baliatuz.
3.3. Zailtasun egokia duten latinezko testuen edukia kritikoki interpretatzea, zer testuingurutan sortu ziren kontuan hartuz, norberaren esperientziarekin lotuz eta gure gizarteko bizimoduak, ohiturak eta jarrerak ulertzen nola laguntzen duten baloratuz.
3.4. Latinezko literaturak literatura- eta arte-obretan (pintura, eskultura, zinema, komikia, publizitatea eta abar) utzi duen aztarna ingurune analogiko eta digitaletan ezagutzea, latindar jatorriko gaiak, topikoak eta argudioak identifikatuz eta haien tratamendua kritikoki aztertuz.
<b>4. konpetentzia espezifikoa</b>
4.1. Latinezko enuntziatu eta testu laburrak eta sinpleak ozenki irakurtzea eta ekoiztea, latinezko oinarritzko ahoskera- eta azentuazio-arauak aplikatuz.
4.2. Latinaren oinarritzko alderdi morfologikoak, sintaktikoak eta lexikoak aztertzea, familia-hizkuntzarenekin eta EAEko irakaskuntza-hizkuntzenekin identifikatuz eta alderatuz.
4.3. Testu laburrak eta sinpleak euskarri analogikoan eta digitaletan ulertu eta interpretatzea, oinarritzko maiztasun-lexiko bat eskuratuz.
4.4. Perpaus sinpleak idatziz eta ahoz ekoiztea, latinaren berezko egiturak erabiliz.

2023ko uztailaren 31, astelehena

Latina
<b>5. kompetentzia espezifikoak</b>
5.1. Zibilizazio latindarraren elementuak azaltzea, batez ere mitologia klasikoari lotutakoak, literatura- eta arte-adierazpenen inspirazio-iturri gisa identifikatuz.
5.2. Erromanizazioak EAeko eta inguruko ondare kultural eta arkeologikoan utzi dituen aztarnak ezagutzea, zaindu, kontserbatu eta zaharberritzeko prozesuak ingurumen-iraunkortasunarekin eta legatuaren zaintzarekin konprometitutako heritartasunaren funtsezko alderdi gisa identifikatuz.
5.3. Erromatarren zibilizazioaren legatu material eta immaterialaren eta haren egungo iraupenaren ikerketa indibidual edo kolektibotik abiatuta lortutako ondorioak ahoz, idatziz edo era multimodalean azaltzea, euskarri analogiko eta digitalen bidez, informazioa hautatuz, egiaztatuz eta baliotasun-, kalitate- eta fidagarritasun-irizpideekin modu sortzailean antolatuz.

## OINARRIZKO JAKINTZAK

Latina
<b>A. Zibilizazio latindarraren oraina.</b>
Europaren eta bertako kulturaren egungo nozioan agertzen diren zibilizazio latindarraren alderdi geografikoak, historikoak, kulturalak, politikoak eta linguistikoak.*
Eskuratutako ezagutzetatik abiatuta iragana eta oraina lotzeko estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak.
Latinezko literaturaren funtsezko obrak beren testuinguruan, eta tradizio klasikoan izan duten iraupena.*
Latinezko literaturan eta kulturaren sexismoa identifikatzeko jarraibideak.
Latinezko literaturaren gaiak, topikoak eta argudioak identifikatzeko jarraibideak, eta haien eta literatura- eta arte-obren arteko lotura.*
Zibilizazio latindarrak gizarte gisa dugun identitatearen konfigurazioan, ezagutzan eta analisi kritikoan duen garrantzia.*
Eskuratutako ezagutzetatik eta norberaren esperientziatik abiatuta latinezko testuak ulertu, iruzkindu eta interpretatzeko estrategiak.*
Latinaren lexikoa: zibilizazio latindarraren funtsezko kontzeptuek orain arte izan duten bilakaera (civis, civitas, populus, sacer, homo, imperium, ius, iustitia, lex, pax...)*
Latinezko testu klasikoek giza izaera osatzen duten alderdien testigantza gisa duten garrantzia.*
Humanismoak giza askatasunaren eta giza duintasunaren aldarrikapenean bete duen zeregina eta egungo gizartean duen agerpena, erreferentziazko latindar egileak abiapuntutzat hartuta (Zizeron, Sulpicia, Virgilio, Horazio, Cornificia, Seneka, eta abar).*
Europako identitatea herritartasun aktiboko jarreraren eta proiektuetan kooperazioan parte hartzearen bidez sendotzeko estrategiak, ingurune analogiko eta digitaletan, herentzia klasiko komunitatik abiatuta.*
Informazioa bilatu, hautatu, ekoiztu, partekatu eta aurkezteko eta produktuak kooperazioan eta era sortzailean lantzeko tresna eta/edo plataforma digitalak.*
Testuinguru analogiko eta digitaletan egin beharreko talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartzeko kooperazio-estrategiak.*
Portaera orokorreko arauak internet bidezko zuzeneko eta zeharkako interakzioan: netiketa.*
<b>B. Latina eta eleaniztasuna.</b>
Latinaren alfabetoa eta ahoskera, eta ikasleen hizkuntza-errepertorio indibidualeko hizkuntzetan duen iraupena eta eragina.*
Aldaketa fonetikorik ohikoenen azalpena, latin kultutik eta latin arruntetik abiatuta.*
Euskal Herria eta hizkuntza erromantzeak.*
Latinetik gaztelaniarako bilakaera fonetikoaren funtsezko arauak identifikatzeko eta ondare-termoak eta kultismoak eza- gutzeko estrategiak.*
Latinaren eta euskararen arteko hizkuntza-antzekotasunak ezagutzeko jarraibideak: deklinabidea.*
Latinak euskararen bilakaeran duen eragina identifikatzeko estrategiak.*

2023ko uztailaren 31, astelehena

<b>Latina</b>
Irakaskuntza-hizkuntzetan idatzitako testuetan hitzak latindar jatorriko lexemekin, atzizkiekin eta aurrizkiekin identifikatzeko jarraibideak.*
Latinezko hitz-elkarketako eta eratorpeneko prozedurak hitz-familiak lantzean.*
Hitzen esanahi etimologikoaren hastapenak.*
Lexiko espezializatuan eta agertu berriaren esanahiak ondorioztatzeko oinarriko estrategiak, latinezko formanteen identifikaziotik abiatuta.*
Latinismorik eta latinezko lokuziorik ohikoenak.*
Norberaren hizkuntza-errepertorioko hizkuntzetan erro komuneko lexikoa ezagutzeko, antolatze eta idatzizko edo ahozko ekoizpenean edo multimodalean txertatzeko teknikak.*
Hizkuntzen arteko konparazioa, jatorrian eta ahaidetasunetan oinarrituta.*
Latinak norberaren hizkuntza-errepertorioko hizkuntzetan idatzizko adierazpena, ahozkoa eta multimodala hobetzeko tresna gisa duen garrantzia.
Latina ikasteko eta latinak beste hizkuntza batzuk ikasteko lotura eta bultzada gisa betetzen duen zereginari buruzko go-goeta egiteko tresna analogikoak eta digitalak.
<b>C. Latinezko testua.</b>
Latinezko enuntziatu eta testu bat irakurtzeko eta ekoizteko oinarriko ahoskera- eta azentuazio-estrategiak.*
Oinarriko hitz eta kategoria gramatikal motak (substantiboak, adjektiboak eta aditzak), gramatika-elementuak eta funtzioak.*
Kasuak eta haien balio sintaktiko nagusiak.*
Izen-flexioa (substantiboen eta adjektiboen deklinabidea), flexio pronominala eta aditz-flexioa (aditz erregularren jokaera boz aktiboan eta pasiboan).*
Oinarriko egitura sintaktikoak (subjektua, predikatua, aditzaren osagarriak).*
Oinarriko perpaus-egiturak (perpaus bakuna: motak; perpaus elkartua: koordinazioa). Komuntadura eta hitzen ordena.*
Latinaren oinarriko maiztasun-hiztegia.*
Testu simple egokitu edo jatorriko bat edozein euskarri motatan ulertzeko eta interpretatzeko baliabide lexikoak eta gramatikalak.*
Norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta aldaeren konparaziotik abiatuta hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia) identifikatzeko, aztertze eta ulertzeko oinarriko estrategiak.*
<b>D. Legatua eta ondarea.</b>
Kultura eta zibilizazio latindarraren legatu materialaren (leku arkeologikoak, inskripzioak, monumentu- eta arte-erakuntzak eta abar) eta immaterialaren (mitologia klasikoa, erakunde politikoak, oratoria, zuzenbidea, errituak eta ospakizunak eta abar) iraupena.*
Kultura latindarraren alderdi (hetero)patriarkalak.
Testu-transmisioa eta idazketa-euskarriak.
Erromatarren kultura-ondarearen eta erromanizazio-prozesuaren ezaugarriak.*
Erromanizazioa Euskal Herrian (erromatarren aurreko herriak, leku eta aztarna arkeologikoak, galtzadak, zubiak, miliarioak eta toponimia).*
Inguruko ondare arkeologikoa kontserbatu, zaindu eta zabaltzeko prozesuetan parte hartzeko interesa eta ekimena.*
Ahozko testuen, idatzizkoen eta multimodalen ulermen, produkzio eta koprodukzio formal zein sortzailerako tresna analogikoak eta digitalak.
Kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien jabetza intelektuala eta egiletza-eskubideak arautzen dituzten lizentziekiko errespetua.
Autoebaluaziorako, koebaluaziorako eta autozuzenketarako estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak.